

FORU DEKRETUA, Ahaldun Nagusiarena Bizkaiko Foruaren 500. urteurrenari inguruko zenbait ekintza antolatzeke Baskoniako Zuzenbide Historiko eta Autonomikoaren Azterketarako Fundazioari, "IURA VASCONIAE", zuzeneko eta salbuespenezko dirulaguntza ematen diona, Bizkaiko Foruaren onarpenaren 500. urteurrenarekin zerikusia duten jarduerak finantzatzeko.

1526ko abuztuaren 21ean, Gernikako Batzar Nagusiek izendatutako legegarien batzordea "zuhaitzaren azpian" bildu zen 1452ko Foru Zaharra berritzeko. Helburua Foru Zaharra eguneratzea zen, zaharkituta zegoena ezabatzea eta Bizkaian benetan aplikatzen ziren usadioak eta ohiturak sartzea. Eskribauek prestatutako testua Bizkaiko pribilegio, askatasun, foru eta ohiturekin bat zetorrela egiaztatu ondoren, batzordeak ontzat eman zuen, onetsi egin zuen eta erabaki zuen berehala jartzea erregearen berrespenerako. Erregeak Valladoliden eman zuen berrespena, 1527ko ekainaren 7an, eta hala amaitu zen Bizkaiko historia juridikoaren eta instituzionalaren mugarri garrantzitsu hura.

Onetsi eta berretsi ondoren, aurrerantzean Bizkaiko Foru Berria izango zenak Bizkaiko foru-araubidearen funtsezko oinarriak finkatu zituen. Bizkaiko garai modernoko lege-multzo garrantzitsuena eratu zen.

DECRETO FORAL de la Diputada General por el que se concede una subvención directa y excepcional a la Fundación para el Estudio del Derecho Histórico y Autnómico de Vasconia "IURA VASCONIAE" para la financiación de las actividades relacionadas con el 500 aniversario de la aprobación del Fuero de Bizkaia.

El 21 de agosto de 1526, la comisión de letrados designada por la Junta General de Gernika se reunió "so el Árbol" para llevar a cabo la reforma del Fuero Viejo de 1452, con la finalidad de actualizarlo, eliminando lo que había quedado obsoleto e incorporando las prácticas y costumbres que realmente se aplicaban en Bizkaia. Tras analizar el texto preparado por los escribanos y verificar que se ajustaba a los Privilegios, Libertades, Fueros y costumbres del territorio, la comisión lo dio por válido, lo aprobó y acordó remitirlo de inmediato para su confirmación real, que fue otorgada en Valladolid el 7 de junio de 1527, culminando así un proceso que marcó un hito en la historia jurídica e institucional de Bizkaia.

Una vez aprobado y confirmado, el que sería conocido como Fuero Nuevo de Bizkaia vino a consolidar las bases fundamentales del régimen foral de Bizkaia y constituyó su más importante cuerpo legal de Bizkaia de la época moderna.



Indar juridikoaz haratago, zeren eta, erregeek elkarren segidako berrespenak eman arren, hartan urradurak eragin baitzituzten denboraren igarotze errukigabeak eta, bereziki, XIX. mendeko gorabehera politikoek lurralde-erregimen partikularretan izan zituzten hondamendi-ondorioek, Bizkaiko Foru Berria indar sinboliko ikaragarriko araugintzako bilduma izan da bizkaitarren nortasun politikoaren eraketan, haien bizikidetzaren eta ingurune politikoarekiko artikulazioaren eredu historikoaren adierazpen juridiko nagusi gisa. Bizkaiko Foru Berria izan da, zentzu horretan, Bizkaiko herritarrak Euskal Herri osoko foru-ondare komunari egin diogun ekarpen nagusia.

Lege-testu hau (1526-2026) onetsi zeneko bosgarren mendeurrena lehen mailako efemeridea da, eta merezi du aintzatestea eta ospatzea, izaera akademiko, politiko eta komunikatiboko jarduketa-multzo bat garatuta, Foruari balioa emateko, bizkaitarren izaera juridiko historikoaren adierazpen berezi gisa, haien ezagutza zientifikoa sakontzeko, Euskadin eta gure mugetatik kanpo zabaltzeko, gizartearen ezagutza sustatzeko eta gure egungo eta etorkizuneko autogobernuaren oinarri gisa duten garrantzia eta potentzialtasuna nabarmentzeko.

Hori dela eta, 2025eko otsailaren 6an Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak onetsi zuen Bizkaiko Batzar Nagusiekin batera sinatzea Bizkaiko Foru Berriaren onespeneren (1526) bosgarren mendeurrena antolatzeke eta ospatzeko protokolo orokorra. Horretarako, bi erakundeek Bizkaiko Lurralde Historikoko foru erakundeen hautapenari, antolaketari, araubideari eta jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987

Más allá de su vigencia jurídica, en la que fueron haciendo mella, pese a las sucesivas confirmaciones reales, el inexorable paso del tiempo y, muy especialmente, el devastador efecto que muchas de las vicisitudes políticas que jalaron el siglo XIX produjeron sobre los regímenes particulares territoriales, el Fuero Nuevo de Bizkaia ha constituido una pieza normativa de extraordinaria fuerza simbólica en la conformación de la identidad política de las y los bizkaínos, como máxima expresión jurídica de su modelo histórico de convivencia y de articulación con el entorno político. El Fuero Nuevo de Bizkaia ha constituido, en este sentido, la principal aportación que la ciudadanía de Bizkaia ha hecho al acervo foral común del conjunto de Vasconia.

El quinto centenario de la aprobación de este texto legal (1526-2026) constituye una efeméride de primer orden que merece ser reconocida y celebrada mediante el desarrollo de un conjunto de actuaciones de naturaleza académica, política y comunicativa, que sirvan para poner en valor el Fuero, como expresión singular del genio jurídico histórico de Bizkaia, profundizar en su conocimiento científico, impulsar su difusión, en Euskadi y fuera de nuestras fronteras, promover su conocimiento por parte de la sociedad y destacar su importancia y potencialidad como fundamento de nuestro autogobierno presente y futuro.

En este contexto, el 6 de febrero de 2025, la Diputación Foral de Bizkaia aprobó un Protocolo General de Actuación junto con las Juntas Generales de Bizkaia para la organización y celebración del quinto centenario de la aprobación del Fuero Nuevo de Bizkaia (1526), en desarrollo de las competencias que corresponden a ambas instituciones forales conforme a lo dispuesto en la Norma Foral



Foru Arauan xedatzen denari jarraikiz dauzkaten eskumenak aplikatu dituzte.

3/1987, de 13 de febrero, sobre elección, organización y régimen de funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia.

Beste alde batetik, *IURA VASCONIAE* - Baskoniako Zuzenbide Historiko eta Autonomikoaren Azterketarako Fundazioak (IFK.: G20815940), Bizkaiko Foru Berriaren 500. urteurrena dela eta, Foruaren bost mendeei buruzko dibulgazio-proiektu bat egitea eta Bizkaiko Foruaren edizioei buruzko erakusketa bat prestatzea proposatu du, XXIV. Sinposio aldizkaria lantzeaz gain. Bizkaiko Batzar Nagusiek eta Bizkaiko Foru Aldundiak uste dute jarduera-programa honek zientzia-, kultura- eta dibulgazio-garrantzia duela, zalantzarik gabe. Hori dela eta, arlo teknikoan zein ekonomikoan laguntza ematea erabaki dute.

Por su parte, la Fundación para el Estudio del Derecho Histórico y Autonomico de Vasconia – *IURA VASCONIAE* (CIF G20815940), con motivo de la conmemoración del 500 aniversario del Fuero Nuevo de Bizkaia, ha planteado la realización de un proyecto divulgativo sobre los cinco siglos del Fuero y la preparación de una exposición dedicada a las distintas ediciones del Fuero de Bizkaia, además de la elaboración de la revista XXIV Simposio. Tanto las Juntas Generales de Bizkaia como la Diputación Foral de Bizkaia valoran que este programa de actividades posee una relevancia científica, cultural y divulgativa indudable, motivo por el cual han acordado prestarle su apoyo, tanto en el plano técnico como en el económico.

Aipatu beharra dago *IURA VASCONIAE* fundazioak sustatutako proiektuaren interes publiko eta soziala handia dela; izan ere, horren bidez bizkaitarrek hobeto ezagutu ahal izango dute, gaur egungo ikuspegia aplikatuz (diziplina asko, irisgarritasuna), Bizkaiko ordenamendu juridikoaren elementu bereizgarrienetako bat: Bizkaiko Forua. Horrenbestez, ekimen hori lagungarria izango da hobeto ulertzeko zer izan den Forua historian zehar: ezinbesteko elementua jakiteko nolakoa izan den Bizkaia —eta Euskadiren— bilakaera politikoa Erdi Arotik hona.

Debe destacarse el indudable interés público y social del proyecto promovido por la Fundación *IURA VASCONIAE* el cual permite acercar a la sociedad de Bizkaia, mediante un enfoque actual, multidisciplinar y accesible, uno de los elementos más característicos de su ordenamiento jurídico: el Fuero de Bizkaia. La iniciativa contribuye así a explicar de manera comprensible qué ha sido y qué ha representado históricamente el Fuero, pieza fundamental para entender la evolución política de Bizkaia —y, por extensión, de Euskadi— desde la Edad Media hasta la actualidad.

Ekimenaren helburua, hau da, ondare juridiko-historikoa zabaltzea eta zaintzea, nahikoa da adierazteko proiektua interes publikokoa dela, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen

Esta finalidad cultural, divulgativa y de preservación del patrimonio jurídico-histórico constituye una razón suficiente para apreciar el interés público cualificado requerido por el artículo 20.2.c) de la Norma Foral 5/2005, de 31



duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak (hemendik aurrera, 5/2005 Foru Araua) 20.2.c) artikuluan arautzen duen bezala, eta, ondorioz, baita dirulaguntza zuzenean emateko prozedura berezia aplikatuz kudeatzeko ere.

Halaber, 5/2005 Foru Arauaren 20.2.c) artikuluko apartekotasuna ere aplikatu daiteke. Horren arabera, dirulaguntza zuzenean eman daiteke interes publikoa, gizartekoa, ekonomikoa edo humanitarioa egiaztatuz gero, edota deialdi publikoa zailtzen duen bestelako arrazoiren bat egonez gero (behar bezala frogatuta). Kasu honetan, xedea berezia da (2026an Bizkaiko Foru Berriaren V. mendeurrena ospatzea), *IURA VASCONIAE* fundazioak prestatutako oroitzapen-programa bateratuta dago eta nortasun teknikoa dauka, erakunde ezin egokiagoa da —euskal zuzenbide historiko eta autonomikoan espezializatuta dago, arlo honetan ibilbide oparoa egin du eta funts, material eta sare zientifiko espezifikoetarako sarbidea dauka—, eta horregatik guztiagatik ez da egokia ez operatiboa dirulaguntza norgehiagoka bidez ematea, ez baitago efemeridearen epeetan jarduera-multzo integratua gauzatzeko gaitasun material eta zientifiko baliokidea duten balizko lehiakideen merkaturik. Beraz, ez da bideragarria dirulaguntza norgehiagoka-araubidean kudeatzea, eta ezohiko zuzeneko dirulaguntza eman da 5/2005 Foru Arauaren 20.2.c) artikulua itzalpean.

Estatu-laguntzen arloan egindako azterketarekin bat etorritik, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107.1 artikulua arabera, ondorioztatzen da dirulaguntza hau ez dela Estatuaren laguntza, erakunde onuradunak ez baitu jarduera ekonomikorik garatzen Europar Batasuneko Zuzenbidearen zentzuan, eta bere jarduera

de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, (en adelante Norma Foral 5/2005), y en consecuencia, para tramitar la subvención mediante el procedimiento excepcional de concesión directa.

Asimismo, se justifica la excepcionalidad requerida por el artículo 20.2.c) de la Norma Foral 5/2005, que permite la concesión directa cuando se acrediten razones de interés público, social, económico o humanitario, u otras debidamente justificadas que dificulten la convocatoria pública. En este caso, la singularidad del objeto (conmemoración del V Centenario en 2026 del Fuero Nuevo de Bizkaia), la unidad e identidad técnica del programa conmemorativo ideado por *IURA VASCONIAE*, y la idoneidad exclusiva de la entidad —por su especialización en Derecho histórico y autonómico vasco, su trayectoria acreditada en el ámbito, y el acceso a fondos, materiales y redes científicas específicos— comportan que una convocatoria competitiva no resulte adecuada ni operativa, al no existir un verdadero mercado de potenciales concurrentes con capacidad material y científica equivalente para ejecutar el conjunto integrado de actuaciones en los plazos de la efeméride. En consecuencia, se estima inviable la tramitación en régimen de concurrencia, procediendo a la concesión directa y excepcional al amparo del citado art. 20.2.c) de la NF 5/2005.

De conformidad con el análisis realizado en materia de ayudas de Estado, conforme al artículo 107.1 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea, se concluye que la presente subvención no constituye ayuda de Estado, dado que la entidad beneficiaria no desarrolla actividad económica en el sentido del Derecho de la Unión, circunscribiéndose su



kultura- eta ikasketa-eremura mugatzen da, estatu kideen arteko lehia eta merkataritza-trukeetan eraginik izan gabe.

actuación al ámbito cultural y académico, sin incidencia en la competencia ni en los intercambios comerciales entre Estados miembros.

IURA VASCONIAE fundazioak jarduketa hauek egingo ditu 1526ko Bizkaiko Foru Berri edo Berrituaren onarpenaren 500. urteurrenaren inguruan:

Las actuaciones a desarrollar con motivo del 500 aniversario de la aprobación del Fuero Nuevo o Reformado de Bizkaia de 1526 por la Fundación IURA VASCONIAE consisten en:

- a) XXIV. Sinposioaren aldizkaria editatu eta argitaratzea, efemeride horri eskainia.
- b) Oroitzapenezko erakusketaren katalogoa egitea eta argitaratzea.
- c) Oroitzapenezko erakusketa bat antolatzea.
- d) 1526ko Bizkaiko Foru Berri edo Erreformatuaren onespeneren 500. urteurrenarekin zerikusia duten oroitzapenezko jardueren koordinazio orokorra.

- a) La edición y publicación de la Revista del XXIV Simposio, dedicada a dicha efeméride.
- b) La elaboración y publicación del catálogo de la exposición conmemorativa.
- c) La organización de una exposición conmemorativa.
- d) La coordinación general de las actividades conmemorativas relacionadas con el 500 aniversario de la aprobación del Fuero Nuevo o Reformado de Bizkaia de 1526.

Illo horretan, Bizkaiko Foru Aldundia erabat konprometituta dago bere ondare juridiko eta historikoa zaintzearekin, aintzatestearekin eta zabaltzearekin, eta prest dago herritarrei Bizkaiko Foruak mendeetan zehar izan duen esanahia, bilakaera eta garrantzia ezagutarazteko ekitaldiak gidatzeko. Hain zuzen ere, “Bizkaia Denontzat” 2023-2027 Agintaldiko Planaren lehentasunezko ildoetako bat da gure nortasuna eta tradizioak babestea mundu globalizatuan. Globalizazioak lurraldeei bereizgarritasuna ematen dieten elementuak higatzeko arrisku nabarmena dakar; horregatik, ezinbestekoa da elementu horiek babestea, sustraitzea eta aintzatestea, haien transmisioa eta jabetza soziala bermatzeko.

En este sentido, la Diputación Foral de Bizkaia está plenamente comprometida con la preservación, puesta en valor y difusión de su patrimonio jurídico e histórico, y dispuesta a liderar eventos que den a conocer a la ciudadanía el significado, la evolución y la relevancia del Fuero de Bizkaia a lo largo de los siglos. Así, el plan de mandato 2023-2027 “Bizkaia Denontzat” recoge entre sus líneas prioritarias la necesidad de preservar nuestra identidad y tradiciones en un mundo globalizado. La globalización comporta un riesgo evidente de erosión de los elementos que confieren distintividad a los territorios; por ello, resulta imprescindible proteger, enraizar y poner en valor dichos elementos para garantizar su transmisión y apropiación social.

Proiektuaren helburu orokorra funtsezkotzat

El fin general del proyecto se considera



jotzen du Bizkaiko Foru Aldundiak, V. Mendeurreneko programa instituzionalaren neurrietako bat garatzeko jarduera-planaren barruan. Programa horren helburua da jarduera zientifikoak, kulturalak eta zabalkuntzakoak sustatzea egungo herritarrek jakin dezaten zein izan diren Foruaren edukia, funtzioa eta ibilbide historikoa Bizkaiko nortasunaren ikur eta antolamenduaren ardatz egituratzaile gisa. Hori guztia Bizkaiko Batzar Nagusiekin batera egingo da.

Horrenbestez, dirulaguntza hau Bizkaiko Foru Aldundiak lurraldeko zuzenbide historikoaren ezagutza, zabalkundea eta kontserbazioa sendotzen dituzten ekimenak bultzatzeko egindako apustuaren barruan kokatzen da, 1526ko Bizkaiko Foru Berriaren onarpenaren V. mendeurrena mugarri esanguratsua baita.

Azaldutako guztia oinarritzat hartuta, eta horrelako jarduera-programa bat edukitzea zein garrantzitsua den jakinik, Bizkaiko Foru Aldundiko Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiak uste du dirulaguntza hau zuzenean eman behar dela, proposatutako jarduera guztiak finantzatzeko.

0713/912130/45100/0000 aurrekontu-partidan, 2026ko ekitaldirako aurrekontuaren 2019/0108 proiektuan, zuzeneko dirulaguntza hau emateak dakarren gastuari aurre egiteko beharrezkoa den diru-esleipena dago.

Bestalde, erakundeak adierazten du ez dagoela 5/2005 Foru Arauaren 12 artikulua araberako foru-dirulaguntzen onuradun izatea eragotziko liokeen ezein arrazoren eraginpean, eta

fundamental por la Diputación Foral de Bizkaia dentro de su plan de actuación para el desarrollo de una de las medidas del programa institucional del V Centenario, orientada a promover actividades científicas, culturales y divulgativas que acerquen a la sociedad contemporánea el contenido, la función y la trayectoria histórica del Fuero como símbolo identitario y eje estructurante del ordenamiento de Bizkaia. Y todo ello en colaboración con las Juntas Generales de Bizkaia.

Por consiguiente, la presente subvención se enmarca en la apuesta de la Diputación Foral de Bizkaia por impulsar iniciativas que fortalezcan el conocimiento, la divulgación y la conservación del derecho histórico propio, especialmente en un hito tan significativo como el V Centenario de la aprobación del Fuero Nuevo de Bizkaia de 1526.

En base a todo lo expuesto, y siendo conscientes de la trascendencia que tiene poder contar con un programa de actividades de tales características, desde la Secretaría General de Coordinación de la Diputación Foral de Bizkaia, se entiende necesaria la concesión de forma directa de esta subvención para la financiación del conjunto de actividades propuesto.

En la partida presupuestaria, **0713/912130/45100/0000**, proyecto 2019/0108 del presupuesto para el ejercicio 2026 existe la necesaria consignación económica para hacer frente al gasto que representa la concesión de la presente subvención directa.

Por su parte, la entidad manifiesta no encontrarse incurso en ninguna de las causas que, a tenor del artículo 12 de la Norma Foral 5/2005 le imposibilitaría adquirir la condición



adierazten du ez dagoela Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan onuradun izateko jasotako debekuetako batean ere.

de beneficiaria de subvenciones forales, y declara que no se halla incurso en ninguna de las prohibiciones para ser beneficiaria recogidas en el artículo 42 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Era berean, aurrerapen ekonomiko eta soziala lortzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak ezinbestekotzat jotzen du emakumeen eta gizonen berdintasuna benetan eta eraginkortasunez lortzeko bidean aurrera egiten jarraitzea, urte asko baitaramatza horretan lanean. Horretarako, dekretuan genero-ikuspegia txertatu da, hura eratzean zein aplikatzean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan ezartzen den bezala.

Asimismo, para lograr el progreso económico y social, esta Diputación Foral de Bizkaia resulta imprescindible seguir avanzando en la consecución real y efectiva de la igualdad de mujeres y hombres, en la que lleva trabajando numerosos años. A tal efecto, este decreto incorpora la perspectiva de género y la perspectiva interseccional, tanto en su elaboración como en su aplicación, conforme se señala en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, y en la Norma foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Halaber, foru dekretu hau egitean kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundiaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituen.

A su vez, y en la elaboración de este decreto foral se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, de la Diputación Foral de Bizkaia, que establece los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia.

Dirulaguntza emateko Diputatu Nagusiak xedapen hauetan esleituta daukan eskumenaz baliatuz eman da: 5/2005 Foru Araua, 9. artikulua; Dirulaguntzen Araudia, 12. artikulua (araudi hori Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen; hemendik aurrera, Dirulaguntzen Araudia).

La subvención se otorga en virtud de la competencia atribuida a la Diputada General por los artículos 9 de la Norma Foral 5/2005, y 12 del Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo (en adelante Reglamento de Subvenciones).

Horregatik, 5/2005 Foru Arauaren 20.2.c artikuluan emandako eskudantziak erabiliz eta

Por ello, en uso de las atribuciones conferidas en el artículo 20.2.c de la Norma Foral 5/2005



Dirulaguntzen Araudian eta Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauan ezartzen denaren arabera, hauxe ebazten da:

citada, y en virtud de lo dispuesto por el Reglamento de Subvenciones, la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia,

XEDATZEN DUT

DISPONGO

LEHENENGOA.- HIRUROGEITA HAMAZAZPI MILA HIRUREHUN ETA ZORTZI EURO ETA HOGEITA BOST ZENTIMO-ko (77.308,25 €) zuzeneko dirulaguntza ematea IURA VASCONIAE Fundazioari (IFZ: G20815940), Bizkaiko Foru Berriaren 500. urteurrena dela eta, Foruaren bost mendei buruzko dibulgazio-proiektu bat finantzatzeko eta Bizkaiko Foruaren edizioei buruzko erakusketa bat prestatzeko, XXIV Sinposio aldizkaria lantzeaz gain.

PRIMERO.- Conceder una subvención directa por importe de SETENTA Y SIETE MIL TRESCIENTOS OCHO EUROS CON VEINTICINCO CÉNTIMOS (77.308,25 €) a la Fundación IURA VASCONIAE (NIF: G20815940) con motivo de la conmemoración del 500 aniversario del Fuero Nuevo de Bizkaia, para la financiación de un proyecto divulgativo sobre los cinco siglos del Fuero y la preparación de una exposición dedicada a las distintas ediciones del Fuero de Bizkaia, además de la elaboración de la revista XXIV Simposio

Dirulaguntza hori Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra ezartzen duen 5/2005 Foru Arauaren 20.2.c) artikuluan xedatzen denaren babesean ematen da, egiaztatuta baitago, erabaki honen azalpen-zatian azaltzen den bezala, deialdi publiko batean sartzeko zailtasuna.

Esta subvención se otorga al amparo de lo dispuesto en el artículo 20.2.c) de la Norma Foral 5/2005, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, al quedar justificado, tal como queda recogido en la parte expositiva de este decreto foral, la dificultad de su inclusión en una convocatoria pública.

Dirulaguntza 2026ko ekitaldiko aurrekontuko **0713/912130/45100/0000** partidako 2019/0108 proiektuari egotziko zaio.

Esta subvención se imputará a la partida presupuestaria **0713/912130/45100/0000**, proyecto 2019/0108 del presupuesto del ejercicio 2026.

5/2005 Foru Arauaren 16. artikulua onorioetarako, dirulaguntza bateragarria izango da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, estatuko,

A los efectos del artículo 16 de la Norma Foral 5/2005, la presente subvención foral será compatible con otra u otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma



EBko edo nazioarteko erakundeetako beste edozein administrazio, erakunde publiko edo pribatutatik jasotakoekin. Horrek ez du salbuesten erakunde onuradunak duen betebeharra betetzetik, hots, dirulaguntza publikoa jakinarazi beharra –horrelakorik badago– dirulaguntza eman duen erakundeari, lehenbailehen eta zuzenbidean onartutako edozein frogabide erabiliz.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ezingo da izan diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa, ez bakarrik, ez beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, eskatutako finantzaketa propioa barne.

BIGARRENA.- Dirulaguntza hau 5/2005 Foru Arauaren 29. artikulua ezartzen duen dirulaguntza-gastuen kontzeptuaren arabera ematen da. Horretarako, dirulaguntza-gastuak dira diruz lagundutako jardueraren izaerarekin dudarik gabe bat datozenak, behar-beharrezkoak direnak eta ezarritako epealdiaren barruan egiten direnak. Dirulaguntza jaso dezaketen ondasunen eskuraketa-kostua ezin da izan merkatuko balioa baino gehiago.

Zergak dirulaguntza-gastuak izan daitezke, onuradunak ordaintzen baditu. Ez dira, inola ere, diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko berreskuratu edo konpentsatu daitezkeen zeharkako zergak, ez eta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere.

HIRUGARRENA.- Dirulaguntza eman dela jakinarazten denetik hamar egun igaro ondoren dirulaguntza onartutzat joko da eta Bizkaiko Foru Aldundiko Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiak

finalidad, procedentes de cualesquiera otras administraciones, entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin que ello obste la obligación de la respectiva beneficiaria de comunicar por cualquier medio probatorio aceptable en Derecho tal subvención pública, de producirse, a la entidad concedente de la presente a la mayor brevedad posible.

El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, incluida la financiación propia exigida, supere el coste de la actividad subvencionada.

SEGUNDO.- La concesión de la presente subvención se realiza atendiendo al concepto de gastos subvencionables que establece el artículo 29 de la Norma Foral 5/2005. A estos efectos tienen la consideración de gastos subvencionables los que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido. En ningún caso el coste de adquisición de los bienes subvencionables podrá ser superior al valor de mercado.

Los tributos son gasto subvencionable cuando la persona beneficiaria de la subvención los abona efectivamente. En ningún caso se consideran gastos subvencionables los impuestos indirectos cuando sean susceptibles de recuperación o compensación ni los impuestos personales sobre la renta.

TERCERO.- Transcurridos diez días desde la notificación de la concesión de la presente subvención, esta se considerará aceptada e, inmediatamente, la Secretaría General de



berehala izapidetuko du Ogasun eta Finantza Sailean (ordainketa bakarra). Horretarako, ez zaio inolako bermerik eskatuko onuradunari, ez baita ikusten bere gain hartutako betebeharrak ez betetzeko arriskurik.

Coordinación de la Diputación Foral de Bizkaia procederá a tramitar el abono de la misma en un sólo pago ante el Departamento de Hacienda y Finanzas, no exigiéndose para ello garantía alguna a la beneficiaria, por cuanto no se aprecia riesgo de incumplimiento de las obligaciones asumidas.

Gastua xedatu, betebeharra onartu eta dirulaguntza ordaindu aurretik, erakunde onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatuko da, eta ez dela zorduna itzulketaren bidez kotasunari buruzko ebazpena dela bide.

Previo a la disposición del gasto, al reconocimiento de la obligación y al pago de la subvención, se comprobará que la entidad beneficiaria se encuentra al corriente de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social y que no es deudora por resolución de procedencia de reintegro.

Baldin eta egiaztapenaren ondorioz onuradunak betebehar horietako bat betetzen ez badu, hamar (10) eguneko epealdia edukiko du egoera hori erregularizatzeko, eta ohartaraziko zaio ezen, erregularizatu ezean, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko duela.

Si como consecuencia de la comprobación efectuada resulta que la beneficiaria incumple cualquiera de tales obligaciones, ésta será requerida para que en el plazo de diez (10) días regularice tal situación con la advertencia de que, en caso contrario, perdería el derecho a la subvención concedida.

LAUGARRENA.- Foru dekretu honen bidez ematen den dirulaguntzaren onuradunak konpromiso hauek hartzen ditu:

CUARTO.- La entidad beneficiaria de la subvención concedida por el presente decreto foral se compromete a:

a) Dirulaguntza aplikatuko den jarduketak egitea.

a) Realizar las actuaciones propuestas objeto de la presente subvención.

b) 5/2005 Foru Arauan eta Dirulaguntzen Araudiaren 57. artikuluan xedatzen denari jarraikiz, onuradunak jarduketak egin dituela frogatu beharko du, eta horretarako 2026ko abenduaren 31ra arteko epealdia edukiko du honako informazio hau biltzen duen justifikazio-kontua aurkezteko:

b) Conforme a lo dispuesto en la Norma Foral 5/2005, y en el artículo 57 del Reglamento de Subvenciones, la justificación de las actividades realizadas por parte de la entidad beneficiaria se realizará mediante la presentación, hasta el día 31 de diciembre de 2026 (incluido), de una cuenta justificativa que deberá contener la información que se indica a continuación:

1. Egindako jarduketak azaltzen dituen memoria.

1. Memoria justificativa de las actuaciones



desarrolladas.

2. Egindako jarduketan kostua frogatzen duen memoria. Honako hauek eduki behar ditu:

a) Egindako jardueren egotzitako gastuen eta diru-sarreraren egoera-orria. Gastuen eta diru-sarreraren egoera-orriaren egitura 1. eranskinean azaltzen dena izan behar da.

b) Aurreko a) apartatuan aipatzen den gastuen egoera-orriko kontzeptu bakoitzean diruz lagundutako proiektuaren gastuen zerrenda sailkatua egingo da, eta bertan jarriko dira hartzekodunen identifikazioa, dokumentu zenbakia, eman eta ordaindutako zenbatekoa eta data, 2. a), b), c) eta d) formularioetan proposatzen den egiturari jarraikiz. Justifikatzeko epealdia amaitzen denarako egindako gastuak baino ez dira kontuan hartuko.

c) Diru-sarreraren egoera-orriko partida bakoitzari dagokionez, aurreko a) apartatuan aipatzen diren diru-sarreraren, dirulaguntzen edo beste diru-sarrera batzuen zerrenda zehaztua, zenbatekoa eta jatorria adierazita, 3. a) eta b) formularioetan proposatzen den egiturari jarraikiz.

d) Zinpeko adierazpena, behar bezalako ahala daukan erakunde eskatzaileko pertsona batek sinatua. Bertan adieraziko da ez dagoela dirulaguntza jasotzen duen proiektuari egotz dakiokeen bestelako sarrerarik, aurreko a) apartatuan adierazitakoez gain.

e) Aurreko b) apartatuan aipatzen den zerrendan dauden gastu orokorren edota zeharkakoen

2. Una memoria económica justificativa del coste de las actividades desarrolladas, que contendrá:

a) Estado de gastos e ingresos imputados a las actividades desarrolladas. El estado de gastos e ingresos a cumplimentar deberá responder a la estructura del modelo que se propone en el formulario 1.

b) Para cada uno de los conceptos que componen el estado de gastos señalado en el apartado a) anterior, se elaborará una relación clasificada de los gastos del proyecto subvencionado, con identificación del acreedor, número de documento, importe y fecha de emisión y pago, conforme a la estructura del documento que se propone en los formularios 2. a), b), c) y d). Solo se tendrán en cuenta gastos efectivamente abonados a la fecha de fin de plazo de justificación.

c) Para cada una de las partidas que componen el estado de ingresos, una relación detallada de los ingresos que se mencionan en el apartado a) anterior, de las subvenciones o de otros ingresos, indicando importe y procedencia, conforme a la estructura del documento que se propone en los formularios 3 a) y b).

d) Declaración jurada suscrita por una persona de la entidad solicitante con poder suficiente en la que se manifieste que no existen otros ingresos imputables al proyecto subvencionado al margen de los expresamente recogidos en el apartado c) anterior.

e) Indicación de los criterios de reparto de los costes generales y/o indirectos incorporados en la relación a que se hace referencia en el



banaketarako irizpideak.

apartado b) anterior.

f) Onuradunak gutxienez egindako hiru hornitzaileen eskaintzak egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztu beharko ditu, baldin eta pertsona edo entitate lotuekin kontratatzen badira edo kontratu txikirako administrazio-kontratazioari buruzko araudian ezarritako zenbatekoak gainditzen badira (Dirulaguntzei buruzko 5/2005 Foru Arauaren 27.7 d) eta 29.3 artikulua); hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, haren ezaugarri bereziengatik, merkatuan hura emango duen hainbeste entitaterik ez badago, edo gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada. Memorian zuritu beharko du hornitzailearen aukeraketa proposamenik merkeena hautatu ezean.

f) La beneficiaria debe aportar justificación documental que acredite como mínimo las ofertas de los tres diferentes proveedores realizadas cuando se contrate con personas o entidades vinculadas o cuando se superen las cuantías establecidas en la correspondiente normativa de contratación administrativa para el contrato menor (art. 27.7 d) y art. 29.3 de la Norma Foral 5/2005 de Subvenciones), salvo que por las especiales características del mismo no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo presten o que el gasto se haya realizado con anterioridad a la solicitud. Deberá justificar en una memoria la elección del proveedor cuando la misma no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

g) Ordainketen fakturen edo dokumentuen kopia.

